

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO

TOKIKO PLANA





INDARKERIA MATXISTA GIZA ESKUBIDEAK URRATZEA DA

GIZARTE OSOAREN INPLIKAZIOA BEHAR DUGU



Beatriz Gámiz
Berdintasunerako zinegotzia

AURKEZPENA

Ermua erreferentziazko udalerria da berdintasun-politiken garapenean, bai eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan ere. Orain gure Udalak beste urrats bat eman du aurrera, Indarkeria Matxistaren Kontrako I. Plan hau aurkeztuta.

Gure helburua sexismoa gizartetik desagerraraztea da, hori baita indarkeria sortzen duena, eta indarkeria horren adierazpen guztien kontra borrokatzea, betiere beste erakunde batzuekin elkarlanean, hala nola mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak, herritar guztiena eta diren guztiak.

Indarkeria matxista ez da indarkeria jasaten duenaren eta indarkeria erabiltzen duenaren arazoa soilik, gizarte osorena baizik. Giza eskubideen urraketa orokorrenetako bat denez gero, ezinbestekoa da gizarte osoaren inplikazioa arazoari aurre egiteko.

Ermuko herritarrok lagundu egin behar dugu emakumeek beren eskubideak oztoporik gabe gauzatu ahal izan ditzaite. Horretan ari gara 1995ean Ermua indarkeriarik gabeko udalerriz izendatu zenetik, eta askoz aurretik ere bai. Jarrai dezagun aurrera oraindik egiteko daukagun lan izugarriarekin, eta konprometitu gaitezen ekintzarekin oraintxe bertatik aurrera.

BAI BAKARRIK DA BAI

Erasoak etxe
barrian ...

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) honela definitzen du indarkeria matxista: emakumei sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa sortzen edo eragiten dien ekintza oro. Haurrak ere indarkeria horren biktima dira, eta nahitaezkoa da da haien segurtasuna eta interesak babestea.



Egilea:
Carmen Ruiz Repullo

Emakumeen salerosketa
sexu-esplotaziorako eta
ahultasun-egoerek
behartutako prostituziorako

Indarkeria-ekintzak
komunitatean

Bortxaketak
eta
sexu-abusuak

Sexu
jazarpena
lanean,
ikastetxean
eta beste
esparru
batzuetan

...eta esparru publikoan

TOKIKO PLANA

Indarkeria matxistaren aurkako

I. Tokiko Plana aho batez onartu zuten alderdi politiko guztiek 2021eko otsailaren 23an. Indarrean egongo den lau urteetan, 45 jarduera zehatz garatu nahi ditu.



Eskaneatu kodea plana deskargatzeko

Neurriak eta helburuak

- 1. Informazio-bilketa hobetzea**, indarkeria matxistaren errealitatea sakonago ezagutzeko, eta kolektibo ahulenek pairatzen dutena batez ere ikusarazteko, hala nola dibertsitate funtzionala duten emakumeek, adinekoek, migratuek, droga-mendekotasunak dituztenek, gaixotasun mentalak dituztenek, lesbianek eta gainerako LGTBI biztanleek.
- 2. Herritarrak sensibilizatzea eta indarkeria prebenitzea**. Indarkeria matxista ez da besteei gertatzen zaien gauza bat. Denok jasan dezakegu emakume izate hutsagatik. Gizarte osoaren arazoa da, ez soilik pairatzen duten emakumeena eta egiten duten gizonena. Indarkeria da pertsona bat nahi ez duena egitera behartzea edota dituen eskubide eta aukerak kentzea. Ermuko herritarrok funtsezko zeregina daukagu indarkeria matxistaren kontzientzia hartzeko, berori prebenitzeko eta deuseztatzeko. **Aizak gizon!: Garrantzitsua duk hire inplikazioa. Tratu ona ikas eta erabili ezak.**
- 3. Biktimgenganako arreta hobetzea**. Administrazio publikoek indarkeria matxista mota guztiak jorratu behar dituzte politika eta neurri eraginkorrek. Ermuko Udalak berretsi egin du helburu horrekin duen konpromisoa, eta tratu txarrak pairatzen badituzu Udaltzaingoak eta gizarte-zerbitzuek hartu, orientabideak eman eta babes-tu egingo zaituzte, Osakidetzarekin eta Ertzaintzarekin elkarlanean.
- 4. Jasandako kaltea konpontzea eta memoria sustatzea**. Indarkeria matxista jasan duten eta jasaten duten emakumeek normalizatu eta duindu egin behar dituzte beren bizitzak. Indarkeriak kostu pertsonal handia eta aukerak galtzea dakarkie. Batzuk betiko joan dira bizitza duin bat bizitzeko aukerarik izan gabe. Ermuan toki publiko bat egongo da emakume horiei omenaldia eta errespetua erakusteko.
- 5. Teknikariei prestakuntza ematea**. Udalak bere langileak gaituko ditu biktimgenganako arreta hobetzeko eta erakundeen indarkeria saihesteko.

ESKAINTZEN DITUGUN BALIABIDEAK



Tel. 943171030
Izelaieta 12

- Laguntza juridikoa eta psikologikoa
- Enplegurako orientabidea
- Jabekuntza ikastaroak
- Elkartzeko lokalak

Gizarte Zerbitzuak

Tel. 943 17 91 61
Komentukua z/g

Arreta 24 orduz

Tel. 900 84 01 11

Udaltzaingoa

Tel. 94317 63 22
Valdespina Markesa

SOS Deiak Larrialdiak

Tel. 112